

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2025eko martxoak 21 · 1348 zenbakia

## AZKEN TEKNOLOGIA OSASUNAREN ALDE



  
ArmeriaEskola<sup>x</sup>



Zatoz ate irekietara!

**MARTXOAK 26**  
**MAIATZAK 6**



**AUKERARIK**  
**ONENA,**  
**ETORKIZUNA**  
**DUENA**



# osasun gida

## Dentistak

**Odontologia  
Biologikoa**

**Miren Albistegi Sojo**

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52  
malbistegi@gmail.com



**BISTA · EDER**

Hortz Klinika · Clínica Dental

30 urte irribarreak eraldatzen.  
Berrituak zu hobeto zaintzeko.

**INPLANTOLOGIA &  
ORTODONTZIA AURRERATUA**

Bista Eder, 19 Tel. 943 700 082 info@bistaeder.es

**MIGUEL SEMINARIO  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 843-702686

**arat.**

**ZURE  
IRIBARRE  
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4  
20600 Eibar  
943 201 851  
www.aratclinika.com

@arat\_klinika



**Unzaga Plaza**

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea  
Unzaga plaza 5, 4º I, Eibar  
Tel.: 943 70 23 85

Kalejuzuzkia: 2000703

**Amaia Esnaola**  
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 50 - 1.º ezk. Eibar  
943 20 72 17 | 660 42 28 08  
amaia@esnaoladentologia.com

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**

970 kalegata 2/a.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- Puntzioa eta TRATAMENDIAK
- A-Stretch + RIPORESINDIAK

ARRAGUSTA, 20  
TEL: 943 53 06 42

ane\_mendia@hotmail.com

**EIBAR** · HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

**Maitane G. Iñiguez**  
Odontologian Lizentziatua

RPS 74/23

- San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
- 943 537 076 - 688 884 808
- info@eibarclinicadental.com
- www.eibarclinicadental.com

**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

## Ginekologia

Dra. Laura  
Martinez



Dr. Alejandro  
Recas

**GINECOLOGÍA  
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Irribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnua. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com



**943-206776**

# Jarraitu gaitzazu!

[www.etakitto.eu](http://www.etakitto.eu)



@etakitto



Maialen Bilbao idazle eibartarrak 'El Juego del Arlequin y otros cuentos' liburua argitaratu du. 30 ipuin batzen ditu bertan, beti ere suspensearen eta intrigaren bidetik. Bere laugarren lana da, lehen antologia, eta ipuin batetik bestera bide ilunetatik eramango digu.

**eta kitto!**  
euskaraz elkarrekin

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



(\*...eta kitto! k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Noiz arte horrela, alkate jauna?**

Orbea kiroldegiko sarreraren “Kirolaren Europar Hiria 2023” irakurri dezakegu, baina behin sarrerara sartuz gero ohartuko gara atezainen atzean dauden ateetako markoak hautsita daudela eta, bertako erabiltzaileak izanez gero, denbora luzaroan konpondu gabe daudela esan dezakegu, horrek ematen duen itxurarekin.

Urte berria hasita, kiroldegiko eta spa-ko bonuak berrituz ditugu. Jarduera fisikoa egitea osasunerako ondo datorkigu eta gustura joaten gara, baina kirol instalazio duinak merezi ditugulakoan gaude.

**Instalazioan, orokorrean** hartuta, margoketa lana egitea ezinbestekoa da, mantxa ikaragarriak baitaude hormetan zein sabaietan, hezetasunaren eta itokinen ondorioz. Ateren baten maratilarik ez dago.

Hilabeteak badira **spa** bere osotasunean martxan ez dagoela. Ordaindu dugu (igoera barne): Noizko konponduko duzue igerilekuko putzua? Hilabeteak darama izorratuta. Sauna hezearen egoera tamalgarria da eta, abuztuan itxita egon arren, ez da egoera aprobetxatu berrizteko; irailean bueltatu eta egoera berean aurkitu genuen; ondoren sauna matxuratu zen eta hilabeteak dira itxita dagoela; noizko sauna hezea? Sauna hezean batzuetan usain txarra somatzen da. Ohe beroak egoera kaskarrean daude. Aldagelan hezetasuna dago azken hilabeteetan: Zergatik? eta noizko konpontzea aurreikusten duzue? Bonua ordaindu eta spa astebete itxita egon zen. Erabiltzaileak informatuta egotea ez litzateke gaizki egongo, galdetzen dugun bakoitzean ez baitugu erantzunik jasotzen.

**Gimnasioak** ere badauka zer hobetu. Lurra berrituz da eta dagoeneko ondulazioak dauzka. Bizikletak eta eliptikak zeharo zaharkituta daude. Hilabeteetan bostetik hirurekin egon gara; bateren bat konponduta ekarri arren oraindik bizikleta guztiak herdoilduta daude, jarlekuak hautsita eta altuera aldatzeko mandoak ez daude ondo. Makina askoren heldulekuetako gomak hautsita eta itsaskor daude eta beste hainbatek ez daukate gomarik. Pesa batzuk ez daukate babesik; ondorioz, teoriar pisu berdina izan beharko luketen bi pesak ez dute berdin pisatzen; eta babesik ez izatean lurra izorratu ahal dute.

Haizegailu batek zarata handia ateratzen du; baina, bero handia egiten duenez, martxan egoten da. Bertako benti-lazioa ez da batere ona. Zokalo batzuk hautsita daude eta punta zorrotz-zorrotza dute; denbora daramate horrela eta zauriren bat egiteko arriskua daukagu. Badira hilabeteak paperik ez dagoela. Kristalera handia mugitu egiten da; norbait bertan apoiatuz gero, erortzeko arriskua dauka.

**Erabilera anitzeko geletan** bero handia egiten du, ez da nahikoa bertako haizegailuekin. **Eta igerilekutik** jaisten den eskailetako hormaren goialdean sekulako zuloa dago; urtebete izango da horrela dagoela. Igerilekuko sabaia zulatuta dago, igerilekutik jaisteko eskilara bat falta da, komuneko pultsadorea izorratuta dago, larrialdietako atearen itxitura apurtuta dago eta igerilekutik behera jaisteko igogailuaren botoia hautsita dago. Irisgarritasuna, beraz, ez dago bermatuta.

Noiz arte horrela, alkate jauna? Zure erantzunaren zain geratzen gara.

**Orbeako erabiltzaileak**

**Liburutegia asteburuetan irekitzeko berriz**

Lehendabizi, eskerrak eman Eibarko Udalarri 25 urtetan zehar kultura zerbitzu publiko eredugarria emateagatik. Hain zuzen, asteburuetan liburutegia irekitzeagatik herri-tarrok liburu, ikus-entzunezko, aldizkari eta egunkariak kontsultatzeko eta mailegatzeko, eta irakurketa/ikas-keta txoko epel goxoa eskaintzeko. Bide batez, zoriundu liburutegiaz eta bere funtzionamenduaz harro egoteko motiboak daudelako. Bigarrenik, kritika Udal gobernuari, herritar erabiltzaile askoren kalte eta haserretarako, zerbitzu publiko eredugarria larunbat goizera mugatu delako, eta beste orduetan kontzentratzeko desegokia eta zaratosoa den ikasketa gela txiki bat bakarrik dagoelako irekita. Horretarako arrazoiak/aitzakia ezagutu gabe, mesedez berriz ere ireki liburutegia, aldaketak egin behar badira ere (zaintzailea liburuazaina ordez, mailegu automatizatuak soilik...). Eskerrik asko.

**Iñaki Serrano**

**Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera**

**PETRAL** → Zazpikia, gogaikarria. “Petral galanta zagoz behintzat zeu!”.

**PIADRE** → Ume-jolasetan, araua haustea. Gaztelera “pierre”-tik ei dator. “Piadre dozu erreixa zapaltzerakuan”.

# 1977

## Automobila udaletzeko fatxadaren kontra

Untzagan, erreskate baten simulazioan egindako argazkia da hau. Ekitaldira bertaratu ziren guztiek ikusi ahal izan zuten ibilgailua Isasi kalearen amaieratik irtetzen, 30 edo 40 km/h-ko abiaduran Untzaga plazaren erdigunera sartu eta talka egiteko.

FOTO PLAZAOLA



### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 21</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>ZAPATUA 22</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>DOMEKA 23</b>
<b>EGUNEZ   Mendiñueta</b> (Urkizu, 6)
<b>ASTELEHENA 24</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 25</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustín, 5)
<b>EGUAZTENA 26</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 27</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>BARIXAKUA 28</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)

**GAUEZ BETI**, 2025ean,  
Lekunberri (Isasi, 31)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Isabel Diaz Ramirez.**  
94 urte. 2025-03-13.
- **Mikel Aizpiri Gabilondo.**  
63 urte. 2025-03-16.
- **Felix Arrizabalaga Enbeita.**  
89 urte. 2025-03-17.
- **Victorio Zelaia Basterretxea.**  
74 urte. 2025-03-17.



Aurreko astean aurkeztu zuten Zaporeak proiektuaren erronka solidarioa sukaldari eta boluntarioek, eskualdeko agintariek batera, Ermuko udaletxean egindako agerraldian.

## Astelehenean hasiko dira Zaporeak erronkarako dilistak biltzen

Aurreko asteko egunean aurkeztu zuten Zaporeak proiektuaren eskutik Debabarrenean burutuko den erronka solidarioa, Ermuko Udalean. Eibar eta inguruko hainbat sukaldariren ekimenez orain dela urte batzuk sortu zen erronkak helburu argia dauka: Lesboseko (Grezia) kanpalekuetan dauden errefuxiatuei janari duina ematen jarraitu ahal izateko elikagaiak eta dirua biltzea. Izan ere, Zaporeak proiektuko boluntarioak urteetan ari dira Greziako errefuxiatu-kanpalekuetan lanean, eta egunero milaka otordu prestatzen dituzte oso egoera zaugarrian dauden pertsonentzat.

Janari-bilketa martxoaren 24tik 28ra bitartean izango da eta, aurreko edizioetan bezala, herri ba-

koitzean elikagai bat bilduko dute: Eibarren, pardina dilistak; Elgoibarren, garbantzu pedrosillanoa; Deban, Ermuan eta Soraluzen, arroz

Azken urteotan egindakoaren bidetik, Greziako kanpalekuetan dauden errefuxiatuei jaten eman ahal izateko Debabarreneko erronka solidarioa antolatu dute Zaporeak proiektuarekin bat egin duten gure eskualdeko boluntarioek. Eibarren pardina dilistak bilduko dira, astelehenetik egunera bitartean.

luzea; Mallabian eta Mendaron, hodi erako makarroiak; eta Mutrikun, arraina kontserban. Janari-bilketa ohiko tokietan egingo da (...eta kitto! Euskara Elkarteak, besteak beste). Horrekin batera, dirua lortzeko rifak saltzen ari dira. Erronkarekin kolaboratzen duten jatetxeetan bi lagunentzat afariak, eta Debabarreneko artisten artelanak izango dira sariak.

### Tuper solidarioa martxoaren 29an Ermuan

Erronkari amaiera emateko, tuper solidarioa egingo dute martxoaren 29an, Ermuko Orbe Kardinalaren Plazan, 14:00etatik 15:00etara: egun horretan Debabarreneko sukaldariek janaria prestatzen eman-go dute goiza, plazan bertan, eta ondoren tuperrak (erdia lentejak bakailoarekin, beste erdia arroza Lumagorrirekin eta fruta pieza bat) 5 eurotan erosi ahalko dira.

Aurreko urteetan bezala, Eibarko Udalak ere erronkarekin bat egingo du, eta herritarrak gonbidatu nahi ditu proiektuan laguntzera.



## “Debarrena Gourmet” menu bereziak eskainiko dituzte eskualdeko jatetxeek

Martxoren 28tik apirilaren 13ra bitartean, *Debarrena Gourmet* ekimen gastronomikoaren bigarren edizioaz gozatu ahalko dugu. Ekimena Debarrena Turismoak antolatuta, Debarreneneko Klub Gastronomikoa osatzen duten sukaldarien laguntzarekin. Horrela, eskualdeko erreferentziazko jatetxeek zazpi plateraz osatutako dastatze-menuak eskainiko dituzte, 65 euroren truke. Aperitiboak, bi hasierako, bi plater nagusi (arraina eta haragia) eta bi postrek osatuko dute *Debarrena Gourmet* menua, eta eskualdeko sei jatetxetan eskainiko da: Eibarko Baratze Gourmeten, Elgoibarko Belaus-

tegi Baserrian, Itziarko Kanalan, Mutrikuko Pikuan, Soraluzeko Txurrukan eta Debako Urgainen. Jatetxe horietako sukaldariek prestatuko dituzte menurako platerak. Halaber, ogia eta kafea menuan sartzen dira, baita ardoa ere: Arabar Errioxako Valdelana familiaren upategiko *AGNUS de Autor* (ardo beltza eta txakolina). Jatetxe bakoitzaren proposamena [debarrenaturismo.com](http://debarrenaturismo.com) webgunean ikus daiteke, xehetasun guztiekin. Probatu nahi duenak aurrez erreserba egin beharko du, jatetxean bertan, *Debarrena Gourmet* menua dastatu nahi duela azalduta.

## Bigarren Errepublikaren aldarria gogoratzeko bisita gidatua egingo da

Bigarren Errepublikaren aldarrikapena gogoratzeko hainbat jarduera antolatuta ditu Udalak. Apirilaren 13an "Errepublika. Untzaga Plaza, oroimenaren lekua" izeneko bisita gidatua egingo du Jesus Gutierrez historialariak, bi saiotan (11:00etan gazteleraz, eta 12:30ean euskaraz). Izen-ematea apirilaren 7ra arte egin daiteke, Udalaren web orriaren bidez. Plaza-kopurua mugatua da (25 lagun taldeko). Eta, horrekin batera, apirilaren 14an argazki historikoak dituzten horma-irudiak jarriko dituzte herrian zehar. Bestalde, apiriletik aurrera Arraten dagoen Gerra Zibilaren Interpretazio Zentroa berriz zabaltzen hasiko direla iragarri dute.



## 'Planetaren Ordua'-rekin bat egiteko deia

*Planetaren Ordua* mundu mailako ekimenarekin bat egingo du Udalak aurrean ere; horrela, bihar 20:30etik 21:30era udaletxea argizatzen duten fokuak, udaletxeko erlojuko eta arkupeetako argiak eta Eibarko Bizikleta Plazako argi batzuk ere amatatu egingo dituzte, klima-aldaketaren aurkako keinu

sinboliko gisa. Eva Juez Ingurumen zinegotziaren berbetan, "argia ordubetez itzaltzea bezain keinu sinplearekin, klima-aldaketaren aurkako eta naturaren aldeko mugimendu global handi honekin bat egitera animatu nahi ditugu herritarrak, edozein ekintza, txiki izanda ere, garrantzitsua baita".





## Ekiialdea birgaitzeko lanean jarraituko dutela adierazi dute EH Bilduko ordezkariak

Aste honetan Hirigintza batzordeak egindako bileraren harira, EH Bilduk Gabilondo eraikina birgaitzearen alde lanean jarraituko duela berretsi du. Adierazi dutenez, "argi dugu Gabilondo eraikin berria traktorea izango dela, eta pertsonen fluxua bermatuko duela. Aisialdirako guneak eta herritarrentzako zerbitzuak eskainiko duen espazio berria izango da. Eraikinaren zaharberritzeak Barrena kalearen itxura aldaketa, arnas gune berria eta espaloien zabaltzea ekarriko du. Jakitun gara ere horrek guztiak diru inbertsio handia ekarriko duela, baina hiriarren ekialdeko birgaitzea errealitate bihurtuko da". Nabarmendu dutenez, "EH Bildu giltza izan da Eibarko ekialdea Udalaren politiken ardatzean jartzeko. Gure konpromisoarekin jarraituko dugu, Barrena, Azitain, Murrategi, Txonta eta ekialdearen biziberritze urbanistiko eta soziala lortu arte". EH Bildutik azaldu dutenez, proiektuaren xedea, batetik, jatorrian etxebizitzena zen nabea eta eraikina birgaitzea da eta, bestetik, es-

pazio horien barrualdea egokitzea, kultura-eremurako, bulegoetarako eta merkataritza-eremurako, hirugarren sektoreko erabilerak nahastuz, eta barruan kale bat sortuz, erabilera publikoko espazio estali bat eratzeko.

### Enplegua sustatzeko bulegoak eta erabilera anitzeko guneak

Proiektuak nabearren barrualdea proposatutako erabileretarako egokitzea ere jasotzen du: co-working gelak, pop-up -era espazioa, Debegesa eta Lanbiderentzat bulegoak, erabilera anitzeko guneak (erakusketa aretoa, ludoteka, bile-rak...), kafetegia eta terraza, igarotzeko gune publikoak eta estalpeko egonaldia.

Bestetik, eraikina eta ingurua zaharberritzeko Udalak jasoko duen dirulaguntza, lan horiek ordaintzen laguntzeko izateaz gain, formakuntza eta laneratze programa bat aurrera eramateko ere izango dela azpimarratu dute. Obra ekainean hastea aurreikusten da, 18 hilabeteko epean bukatzeko, 2026 urtearen amaieran.



## Palestinari elkartasuna azaltzeko manifestazioa egingo da domekan

Palestinaren aldeko manifestazioa egingo da domekan, 12:00etan, Untzaga plazatik hasita. Eibar Palestina taldeak antolatu du, Palestinan gertatzen ari dena salatzen eta palestinarrei babesa erakusteko. Horrela, eibartar guztiei egiten die bertan parte-hartzeko deia.



## Portalea aldameneko igogailua zerbitzuz kanpo

Errekatxuko urbanizazio berriaren lanak direla eta, Portalea ondoko igogailua zerbitzuz kanpo egongo da gutxienez hilabete batez. Izan ere, igogailuaren geralekuak aldatu behar dira, ingurune ko konfigurazio berrira egokitzeko. Beraz, igogailua zerbitzuz kanpo dagoen bitartean, erabiltzaileek Portaleko eraikineko igogailua erabili ahal izango dute.





MARINA PEROSANZ

## Udaberria

Duela egun batzuk, lehenengo erlea etorri zitzaidan leihoan ditudan loreak polinizatzera. Erle hark bazekien, eta, naturaren deia entzun izan banu bezala, nik ere antzeman nuen: badator udaberria. Ez naiz ni urtaro hau islatzen duen sinboloren bat aurkitzen duen lehena; izan ere, Vivaldik, udaberriari eskainitako abestian, txorien txioak, erreken doinua eta ekaitzen hotsa noten bidez irudikatu zituen.

Nik erlea aukeratu dut udaberriari ongietorria emateko, izaki ñimiño bat. Ba al zenekien greziar mitologian jainkosa bat dutela udaberriari hasiera ematen diona? Persefone, Infernuetako erregina. Persefonek ez du urte osoa Azpimunduan ematen, eta bizidunen mundura itzultzen denean, natura loratzen da.

A ze nolako oparia egiten digun Persefonek! Udaberria ez da oharkabea pasatzen. Berritze garaia da, neguko lozorrotik irteteko. Sugandilak moduan, eguzki-izpiak ikusi eta gure gordelekuetatik ateratzen gara. Eguzki-izpien pean, dena hobea da: kafetxo bat terrazan, paseo bat itsasertzean... Pozgarria da kaleak eta plazak bizirik ikustea.

Badirudi egunak luzeagoak eta argitsuagoak direnean, denok pizten garela. Naturarekin bat egiten dugu. Instintu basikoa ote da? Landareak moduan, loratzeko unea da.

Bestalde, udaberriak alergiak ere badakartza. Barkatu polenari alergia diozuenei! Dena den, ez kezkatu. Urtero bezala, udaberria etorri eta joan egingo da. Persefone Azpimundura itzuliko da, eta guk berriz itxarongo diogu. Horixe da bere magia. Beti izango bagenu, agian ez genuke horrenbeste miretsiko. Loreek loratzeko, loratu ezin duten garai bat behar dute. Azken finean, Vivaldik urtaro bakoitzari abesti bat eskaini zion, ez bakarrik udaberriari.

**“Loreek loratzeko, loratu ezin duten garai bat behar dute. Azken finean, Vivaldik urtaro bakoitzari abesti bat eskaini zion, ez bakarrik udaberriari”**

# “Garrantzitsua da gazteek zalantzak argitzea euren sexualitatea modu erosoan bizi ahal izateko”

NAGORE OTAZUA • Sexologoa



Andretxean sexu-aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute 10 eta 25 urte bitartekoentzat (biak barne). Nagore Otazua sexologoa arduratzen da zerbitzu profesionala eskaintzeaz eta doako arreta ematen du eguenetan, hamabost egunero, 17:00etatik 19:00etara. Hitzordua eskatu behar da eta, horretarako, 688 853 440 zenbakira deitu edo WhatsApp mezua bidali daiteke, ala bestela andretxea@eibar.eus helbidera idatzi.

**A**ndretxeaSEX zerbitzua Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrerako ikastetxeetan eskaintzen den Hezkuntza afektibo-sexualeko programari lotuta dago, eta horren bitartez ume, nerabe zein gazteentzako sexu orientazioa, aholkularitza eta akonpainamendu arduratsua eskaini nahi dute.

## **Nolako zerbitzua eskaintzen duzue AndretxeaSEX-en?**

Gazteentzako aholkularitza sexual profesionala da. Sexualitatearekin lotuta sortzen diren nahasteak argitzeko gaude identitateen, orientazioaren, desioaren edota harremanen inguruan. Horren gainean berba egiteko, komentatzeko edo zalantzak argitzeko aukera eskaintzea da helburua.

## **Bakarkako zitak izaten dira ala lagun batek baino gehiagok hartu dezake parte zita berean?**

Bakarrik, bikotean edo gehienez hirukotean etortzeko aukera dago. Hiru lagunetik gora arreta emateko aukera nahastu egiten da pixka bat.

## **Konfidentzialtasuna bermatzen da, ezta?**

Bai, guztiz. Bertan egiten dituzten galderak, partekatzen dituzten zalantzak eta kezak, edo dena delakoa, anonimoak eta pribatuak dira.

## **Zerbitzua jaso nahi duen norbaitek zer egin beharko luke jaso ahal izateko?**

Etortzeko prozesu erraza jarraitu behar da, hitzordu bitartez funtzionatzen dugulako. Telefonoz deitu ala WhatsAppa edo e-maila idatzi dezakete, baina batzuetan bat-batean erabaki dezakete hona etortzea eta Andretxean bertan euren eskaria jasoko genuke.

## **Zergatik izan daiteke garrantzitsua zerbitzu hau jasotzea 10etik 25 urtera arteko gazteentzat?**

Sexualitateari dagokionez, adin tarte horretan gudan aldaketa gehien ematen den sasoi da. Heldua izanda, agian, beste aukera batzuk ditugu edo beste erabaki batzuk hartu ditzakegu informazioa bilatzeko, baina gazteek ez dute hainbeste baliabide eta eurei aukerak erraztea da asmoa. Zalantzak badituzte, garrantzitsua izango litzateke horiek argitzea euren sexualitatea modu erosoan bizi ahal izateko. Sexualitateak eskaintzen duen aniztasun guztia kontuan izanda, ahalik eta modurik erosoenean bizitzea da asmoa.

## **15 urteko aldea dago adin tarte horretan. Kezkak, zalantzak eta jakin-minak ezberdinak izango dira adin ezberdinetako gazteen artean, ezta?**

Bai, noski. 10 urtekoak oso txikiak eta gazteak direla pentsa dezakegu, baina kontuan izanda sexualitatea-



Nagore Otazua sexologoa arduratzen da Andretxean sexu-aholkularitza eskaintzeaz. EKHI BELAR

rekin jaiotzen garela eta hil arte izango dugula, agian galderak ezberdinak izango dira, baina badituzte horren inguruko galderak.

**Zeintzuk dira gazteek dituzten galdera edo kontsulta nagusienak?**

“Gauza hau eta bestea nola egiten da?”, “Zer gertatzen da hau egiten badut?”, “Noiz hasi ahal naiz ‘ez dakit zer’ egiten?”... Gero eta gazteagoak izan, genitalekin eta praktika sexual batzuekin lotzen diren galderak egiten dituzte gehienbat. Nagusitzen diren heinean bikoteak agertzen dira, desioa beste modu batean azaltzen da, gustatzen zaiona beste forma bat hartzen doa... Sexualitatea bizitzeko modua aldatzen doa eta galderak harremanekin, zeloekin, kontrolarekin eta abarrekin lotzen dira gehiago.

**Sexu-harremanez gain, identitatearen inguruan ere galderak egiten dituzte edo hausnartzen dute?**

Bai. Sexualitatearen barruan dagoen espektro oso eta zabalaz jarduten dugu eurekin: identitateak, adierazpen formak, orientazioa, desioa, desio horiek nola jartzen ditugun praktikan eta nola partekatzen ditugun, plazerra, harremanak...

**“Batuetan, ekartzen duten galdera eslogan moduko bat izaten da eta horren atzean egoten da benetako galdera edo zalantza”**

**Norbait zerbitzua jasotzera badator, ohikoena zita bat baino gehiago edukitzea da edo bakarrarekin nahikoa izaten da?**

Kasuaren arabera izango da. Egia da, batuetan, ekartzen duten galdera eslogan moduko bat izaten dela eta galdera horren atzean egoten dela benetako galdera edo zalantza. Hemen laguntzeko gaude, beraz, lehenengo zita egin eta gero badago jarraitzeko aukera.

**Hezkuntza zentroekin elkarlanean ari zarete?**

Bai. Sexu-hezkuntza eskaintzen dugu eta, mailaren arabera, generoaren inguruan ere jarduten dugu.



Elkarrizketaren  
BIDEOA



### **Zentzu horretan, nola ikusten dituzu gaur egungo gazteak?**

Oso gaztetatik helduen ideiak dituztela ikusten dut. Adibidez, “zer uste duzue dela sexualitatea?”, galdetzen diet LH6-ko ikasleei, eta jiji-jaja, sexu-praktiketan eta genitaletan zentratzen dira, pornoa agertzen da, bortxaketa, prostituzioa... Hortik doaz denbora guztian eta ikuspuntua zabaltzen saiatzen gara. Bai, hori sexualitatearen barruan egon daiteke, baina beste gauza asko daude: “Norekin nahi dut hori egin?”, “gustatzen zait?”, “bera nirekin gustora dago?”... Sexu-hezkuntzan ideiekin eta hausnarketekin egiten dugu lan. Ez dugu esaten “hau horrela da eta beste hau horrela”, baizik eta orientatu eta ideiak argitzen ditugu. Eurek hausnartzea da gakoa.

### **Pornoa aipatu duzu. Orain horrelako edukietarako sarbidea errazagoa da eta horrek eragin gehiago dauka gazteen sexu hezkuntzan?**

Teknologia gizakiak baino azkarrago doa eta bai, pornoa kontsumitzeko irisgarritasuna handiagoa da gaur egun. Era berean, sexualitatea genitalekin eta sexu-praktika jakin batzuekin bakarrik lotzen badugu, logika horri jarraituz, ez da hain arraroa sexualitatea bortxaketa-rekin, pornografiarekin edo prostituzioarekin lotzea, genitalak eta penetrazioa daudelako. Gure ideia ikuspuntua zabaltzea da. Ikustea bortxaketa bat ez dela sexu-harreman bat, ezta harremana ere.

### **Zuek eskaintzen duzuen zerbitzuak eta horrelako ekintzek gazteengan eragina dutela ikusten duzue?**

Eragina dute, baina era berean beste aldean dagoenak indar handia du: mugikorrak, Internet... Ahal duguna egiten dugu eta heltzen garen tokira heltzen gara. Hau guztia ikasgai moduan landu beharko litzateke hezkuntza zentroetan. Denbora guztian ari dira hainbat mezu jasotzen eta gu ikuspuntua zabaltzen saiatzen gara, baina LH6-n lanketa bat egin dezakezu eta hurrengo urtean, eurekin berriz egoterakoan, DBH1-en, berriz lehengo mezu horiekin dabilzala ikusten duzu. Beste alde batetik, gazteen pentsatzeko moduak geroz eta polarizatuago daudela sumatzen dut. Alde batetik,



**“Gazteen pentsatzeko moduak geroz eta polarizatuago daudela sumatzen dut. Mutil batzuegan emakumeenganako gorroto antzeko bat ari da sortzen”**

ideia progresistagoak ikusten ditut; baina beste alde batetik, ideia atzerakoiak ari naiz ikusten. Mutil batzuegan emakumeenganako gorroto antzeko bat ari da sortzen. Komunikabide, TikToker eta YouTuber batzuek igortzen duten mezuek eragina dute euren- gan. Emakumeen aurkako mezuek izaten dira eta oso komentario gogorrek entzun izan ditut. Gaur egun, adibidez, familia tradizionala izatea da apurtzaileena, atzerakoia izatea da punkyena. Pentsatzen dut egoera hori lasaitzen joango dela eta neurria hartuko zaiola, baina momentu honetan horrela gaude.

 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • **EIBAR**



**BISITATU GURE  
PISU PILOTUA**



**Erreserbatu orain zure**  
etxebizitza eta ez ordaindu  
**eskritura-gasturik**

Maiatzaren  
**30** era  
arte bakarrik!

**2, 3 edo 4 logelako**  
etxebizitzak

Bizikleta-aparkalekuak | Gimnasioa  
Jolasguneak | Gourmet aretoa

**900 11 00 22 • neinorhomes.com**

# BESTE MODURA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko  
oliba-olio birjina estra, kontserbak,  
ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz  
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

# DENONA DA ONURA

**Martxoak 10-26 / [errigora.eu](http://errigora.eu)**



**EGIN ESKAERAI** >>



# Altzairuzko eskuak gure ongizaterako

Punta-puntako robota instalatu dute Mendaroko Ospitaleko urologia-zerbitzuan, lehenengo eskualde-ospitale batean. Martxoaren 27an jarriko dute martxan eta, Ganten (Belgika) azken prestakuntzak jasotzera joan aurretik, robota erabiltzeaz arduratuko diren Lore Agirreazaldegi eta Garazi Lopezekin egon gara teknologia berri horrek eragingo dituen aldaketan inguruan berba egiteko.

**H**ugo RAS (Robotic Assistance Surgery) izeneko robota ekarri dute Mendaroko ospitalera. Punta-puntako robota da eta laparoskopio kirurgia egiteko laguntza eskaintzen die zirujauari. “Laparoskopio kirurgia egiteko, pazienteen tripa CO<sub>2</sub>-arekin puztu egiten dugu eta kamera bat sartzen dugu barruan. Horrela, pantaila horren bitartez pazientearen barruan egongo bagina bezala ikusten dugu, hiru dimentsiotan”, zehazten du Lore Agirreazaldegi Mendaroko urologia-zerbitzuko mediku zirujauak.

Hugo bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dugu eta hasieran pentsa zitekeena baino txikiagoa dela ematen du, baina horren arrazoia eman digu Agirreazaldegik: “Hemen duguna kontsola da. Gero, metro inguruko lau torre ditugu, lau beso ezberdinekin, eta kontsola honetatik kontrolatzen da. Hemen dugun pantailak irudia hiru dimentsiotan



ikusteko aukera ematen digu betaurreko batzuen bitartez begiratzen badugu. Gainera, ebakuntzak egiten direnean pazientearen alboan beste zirujau bat egongo da eta horrek beste pantaila batean ikusi ahal izango du egiten dena, kasu horretan bi dimentsiotan”.

Ebakuntzak egiten direnean, aparatu guztiak kirofanoan egongo dira. Hau da, medikuak ez du etxetik operatuko, pazientearen alboan egongo da, baina robot hau erabiltzen. Gainera, protokolo zurrinak jarraituko dituzte eta, makinak huts eginez gero, zirujauak orain arte egin bezala jarraitu ahal izango dute ebakuntzekin. “Azkenean, ematen du robotak operatzen duela, baina guk geuk operatzen dugu. Orduan, adibidez, zerbait kateatzen bada, makina deskonektatu egiten dugu eta orain arte egin dugun bezala operatzen jarraituko dugu laparoskopio bidez eta pantailan bi dimentsiotan ikusiz, azken urte hauetan egin





Ebakuntzak egiteko orduan hainbat abantaila eskaintzen ditu Hugo RAS-ek. EKHI BELAR

den bezala. Hau da, ez du inongo arazorik eragingo”, argitzen digu Agirreazaldegik.

#### Mugimendu zehatzagoak

Hugok hainbat abantaila eskainiko dituela uste dute medikuek. “Robotarekin zirujauak hobeto operatuko du edo, behintzat, bere mugimenduak zehatzagoak izango dira, bere ikusmena hobea izango da, dardarak ekiditen ditu, erosoago jardungo dugu... Gero hori emaitzetan islatuko den? Baietz uste dugu”, Agirreazaldegiren iritziz. “Adibidez, prostatako minbizia kentzeko ebakuntzak albo-ondorioak izaten ditu (pixaren eta funtzio sexualaren galera, kasu) eta espero dugu orain kasu horietan horrelakoak ekiditea”, zirujauak esan digutenez. “Gutxienez, azkarrago hartuko dute gernuari eustea (kasuak kasu)”.

Momentuz urologia-zerbitzuan bakarrik erabili ahal izango dute robota. “Batez ere urologian ikusi

## >>> Mendaroko ospitaleko urologia-zerbitzuan puntako robota erabiltzen hasiko dira ebakuntzak egiteko

## >>> Hilaren 27an egingo dute lehen ebakuntza robotarekin eta horretarako prestakuntza jaso dute profesionalak

direlako abantailak”, diosku Agirreazaldegik. Beraz, ohiko erabilera horrelako kasuetan egingo da: prostatektomia erradikala egiteko, giltzurruneko minbizia kentzeko, giltzurrunaren irteeran malformazioa dagoenean erreparatzeko, uretrako tumoreetan... “Prostatako minbizia operatzeko erabiliko da batez ere”, zehazten du Agirreazaldegik. Hau

da, orain arte laparoskopia bitartez egiten ziren operazioak egiten jarraituko dute, baina robotaren laguntzarekin.

#### Profesionalen prestakuntza

Hilaren 27an hasiko dira Hugo robotarekin operatzen eta dagoeneko erabaki dute nola jardungo duten. “Garazi eta biok hasiko gara robota-



Horrelako robot bat eskualde-ospitale batean instalatzen den lehen aldia da. EKHI BELAR

## >>> Beste espezialitate batzuetan erabiltzeko aukera ematen du robotak, baina momentuz urologia-zerbitzuan bakarrik erabiliko da

## >>> Zirujauak robotaren etorrera pozik hartu duten arren, arazo handiena medikuen faltan dagoela uste dute

rekin ebakuntzak egiten. Lehenengo ebakuntzak nik egingo ditut eta bera laguntzailea izango da, eta gero aldatu egingo dugu, berak operatu eta nik lagundu, biok martxa hartzeko”, diosku Agirreazaldegik. Hamar urteko esperientzia du Txagorritxu ospitalean Da Vinci izeneko robotarekin lan egiten eta, robotak berdinak izan ez arren, antzekotasunak daude

bien artean eta zirujauarentzat ez da zerotik hastea bezala izango.

Esperientzia asko da, baina preskakuntza ezinbestekoa izan da robotarekin ikasteko. Horrela, kontsola bulegoan eduki dutenez, praktikatzen aritu dira orain arte. “Simulatzaileen bitartez ariketak egin ditugu trebetasuna hartzeko”, esan digute, eta aste honetan bi zi-

rujauak Ganteko (Belgika) Orsi akademian izan dira robotaren inguruko azken entrenamendua jasotzen. Gero, hilaren 25ean, kirofanoan simulakro bat egingo dute, benetako operazio bat izango balitz bezala jarduteko eta azken zalantzak argitzezko. “Gainera, lehen ebakuntzetan tutore bat izango dugu, Tarrasako (Katalunia) ospitaleko urologo bat, robotarekin esperientzia gehiago duena, eta badaezpada egongo da bertan”, argitu digu Agirreazaldegik.

Zirujauak gain, erizainek ere preskakuntza jaso behar izan dute. “Robotaren lau besoak esterilizatu egin behar dira eta, horretarako, plastiko batekin jantzi behar dituzte modu zehatz batean”, azaldu digute.


### Itxaron-zerrendak behera?

EAE-ko probintzietako hiriburuetan badaude antzeko robotak, baina hau da eskualde-ospitale batean instalatzen den lehengoa. “Izan daiteke guran konfiantza dutelako jarri

dutela hemen, baina ez dakit, ez dut uste horregatik denik”, diosku Agirreazaldegik. Eta zergatik orduan? “Gai politiko batengatik, ziur aski. Hau hemen dago egon behar delako. Baina gudan konfiatzen dutela? Ba bai, esperientzia dugulako operatzen. Robota erabiltzeko gaitasuna dugu eta aprobeztatuko dugu”, argitzen du.

Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburu Alberto Martínezek orain dela hilabete egindako bisitan aipatu zuenez, horrelako ekipamenduen birtartez pazienteen kopurua handitzea eta itxaron-zerrendak murriztea lortuko litzateke, baina Agirreazaldegik eta Lopezek tentuz jokatu nahi dute. Are gehiago, hasieran alderantziz gertatuko dela uste dute: “Robotera egokitzea kostatu egingo zaigu eta hasieran gehiago iraungo dugu ebakuntza bat egiten. Gero, ez dakit azkarrago egingo dugun, kontua da gauzak hobeto egingo ditugula”.

Robotaren erabilerak ekarriko dituen eraginak zeintzuk izango diren ikusteko dagoen arren, seguru dena da urologia-zerbitzuaren berrantolaketa ekarri duela. Gaur egun bost lagun daude bertan lanean, baina bat bajaran dago. “Ezin gara orain arte bezala antolatu. Izan ere, robotaren erabilerak ikasketak-kurba bat du eta, esaterako, zirujauak 12 kasu behar izango dituzte ikasketaren gorenera heltzeko. Orduan, Garazi eta biok hasiko garenez, eguinetan, ebakuntzak egiten diren eguinetan, gu egon beharko gara beti”, diosku Agirreazaldegik. “Lehen ez zen horrela, denok egiten genuelako dena, denok ditugulako gaitasun berdina”, zehazten du Lopezek. Horrela,



Simulatzaile bat erabili dute robota nola erabili ikasteko. EKHI BELAR

urologiako beste bi zirujauak itxaron egin beharko dute robota erabiltzen hasteko.

Badago urologia-zerbitzuaren langile-kopurua handitzeko aukera, baina arazoa mediku falta da. “Ez dago medikurik, ez dago urologorik, hemen beste lankide gehiago sartzeko gaitasuna dagoen arren”, azaldu digute. “Horrek gure lan-baldintzetan eragiten du. Izan ere, taldean baja bat izan dugu eta hilabe-

teak daramatzagu lauron artean lan gutzia egiten”, diosku Lopezek. Eta Agirreazaldegik zera gehitzen du: “Gainera, kontsultetan ez dugu Debabarreneko jendea bakarrik ikusten, Zumaia, Getaria eta Zestoako jendea ere hartzen dugu. Orduan, kasu honetan teknologian inbertsioa egin da eta pozik gaude, baina arazo handiena oinarrian dago eta momentuz makinek ez dute hori konponduko”.





JESUS MARI SAGARNA

## Lagun artista baten emaitza

Sostoa Abesbatzarekin izandako entsegu baten ondoren ezagutu nuen. Isabel Laspiurren estudioan sartu eta harreman errazekoa eta irekia zirudien gaztea aurkitu nuen. Egun horretan abiatu zen urte askotako bion arteko lankidetzeta. Burutik ere ez zitzaizkidan pasatu Walterrek bere grabazioekin Sostoaakooi eskainiko zizkigun poztasun uneak. Beti zen berdina: besarkada irribarretsua, elkarrekin gosaldu eta lanera. Hasieran Mendaroko bere estudio txikian, gero Eibarko handiagoan. Abestiak aukeratu ondoren, soinua erregulatu eta ekualizatu behar zen, zuzeneko kontzertuetako grabazioak oso ingurune ezberdinetan egindakoak baitziren.

Modu horretan eskaini zizkigun Walterrek Koralekooi hogeitik gora CD, altxorra izateaz aparte, gure ibileraren ordainezinezko oroitzen bilakatuak. Walterrek, gainera, aukera zuen bakoitzean jakinarazten zidan Sostoa Abesbatzak bazuela toki berezia bere bihotzean. Hil baino hamar egun lehenago pasatu zizkigun azken bi CD-ak.

Irailen berarekin bizitza partekatu zuten lagun eta musika estiloen eskutik Untzagan egin zitzaion Omenaldi Kontzertutik aparte, gustatuko litzaidake hainbeste ezagutzen ez den bere beste alderdi bat hona ekartzea. Pandemiarekin batera, Walterri soinu-teknikari bezala izango zuen erronka garrantzitsuenetako bat helduko zitzaion. 2019ko amaieran eta 2020ko hasieran Bilbon eta Getxon sortzez euskaraz idatzitako operetako lanekin osatutako bi kontzertu egin ziren, Andeka Gorrotxategi tenorea, Ana Otxoa sopranoa, Bilboko Abesbatza Elkartea eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaren parte-hartzearekin, Oliver Diazen zuzendaritzapean. Zuzeneko grabazioa ustel atera zen. Eta hor sartu zen eszenan Walter gure laguna. Sustatzaileek berarengana jo zuten aipatutako grabazioa “berreskuratze” proposamenarekin, horrela CD batean editatzeko. Lan zaila aurreikusten zen, baina baita interesgarria ere.

Konfinamenduan geunden. Ilusio, ahalegin eta energiaz erronka onartu zuen eta lanean hasi zen. Walter Eibarren, mugikorra eskuan grabazio mahaiaren aurrean eta ordenagailua. Ni, operen berreskurapenaren eta kontzertuko egitarauaren arduradun bezala, nire Bergarako etxean, mugikorretik zintzilik, partiturak belaur

**“Modu horretan eskaini zizkigun Walterrek Koralekooi hogeitik gora CD, altxorra izateaz aparte, gure ibileraren ordainezinezko oroitzen bilakatuak”**





gainean eta arkatza eskuan nuela. Horrela garatu genuen lana, egunez egun, zazpi hilabetetan 7/9 orduko jardunaldietan, zoritxarreko grabazioa berrekite ahaleginean. Walterrek oraingoan ez zuen orkestra- eta abesbatz-masa haundi bati aurre egin behar, instrumentu-lerro (20tik gora) eta ahots (bakarlariak eta abesbatz handia) ezberdinei baizik, bakoitza identifikatu eta arazo bakoitzari konponbidea aurkituz. Beharrezkoa egingo zitzaion instrumentu bakoitzean askotan modu individualizatuan eragitea, zuzenduz, doitzuz, soinuak nabarmenduz, etb. Eta operako 17 gai ziren, ia guztiak argitaratu gabeak eta baita grabazio-primiziak ere. Lan geldoa zen, pazientziaz hartu beharrezkoa, batzuetan nahigabeekin. Artisautza delikatua zen eskuartekoa eta Walter artista egokiena zen hori burutzeko. Niretzat gozamena zen zelako lan zorrotza egiten zuen.

2020ko azaroaren 20an jaso genuen, azkenik, Erik Nielsen Bilboko Orkestra Sinfonikoko zuzendariaren OKa, eta argi berdea eman zigun “ALARE! Euskal Operaren Urrezko Bristadak” CD-aren edizioari. Jakina... Walter Tuzzeok nahastu

**“Walter Tuzzeo gure betirako laguna izango zenak barruan zuen balio pertsonalaren eta kalitatearen isla eta garaipena izan zen”**

eta masterizatutakoa. Azaroaren 29an Bilboko Barraincua Aretoan egindako ekitaldian aurkeztuko zen, Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Diputazioko agintarien aurrean, “Andekazaleak” lanaren sustatzaileak bertan zirela, Jose Antonio Azurmendi presidentearekin, eibartarra bera ere. Walter Tuzzeo gure betirako laguna izango zenak barruan zuen balio pertsonalaren eta kalitatearen isla eta garaipena izan zen.

## Negutrail topaketa domekan Javi Dominguezekin

Javi Dominguez Ledo mendi-korrikalari ospetsua izango da gonbidatu berezia Mendi Jardunaldien barruan Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako ekitaldi horretan. Aukera aprobetxatuz, domeka goizean egingo den irteera horretako parte-hartzaileek hiru geldialdi izango dituzte Javiri galderak egiteko, aukera emanez bere esperientzia eurekin partekatzeko.

Goizeko 08:30ean abiatuko dira Klub Deportiboaren egoitzaren aurretik eta, badaezpada, antolaztaileek bi ibilbide prestatu dituzte, "eguraldiaren eta mendiaren baldintzen arabera". Ibilbide bietako hasiera eta amaiera berdina izango dira, baina A ibilbidean Urkora igoko duten bezala, B ibilbidean Urko azpitik pasatuko dira. Zailtasun mailari dagokionez, erraza dela diote, eta A ibilbideak 13 kilometro eta erdi izango ditu eta B ibilbideak ia



Aurtengo edizioko kartela. Parte-hartzea doan bada ere, QR horretan eman behar da izena.

14 eta erdi. Hiru ordutan edo hiru ordu eta erditan egitekoa izango da 880 metro (A ibilbidean) eta 774 (B ibilbidean) aurkituko duten goranzko metatua. Izen-ematea QR kodigo baten bidez egin beharko da.

Javi Dominguez gasteiztarrak 168 kilometroko Ehunmilak bost

aldiz irabazi ditu, G2H (88 km) behin, Hiru Haundiak (100 km) beste bitan. Horrez gain, Gasteizko 10 mendiak (55 km) eta Tor des Géants (330 km) probetan ere nagusitu zen, azken horretan errekorra eginez. Ahaztu barik Europako mendi-taiko Travesera (75 km) eta Gran Trail Aneto Posets (106 km) probak ere bereganatu zituela, hirugarren izanik Ultra Trail du Mont Blanc (167 km), Grand Raid de la Reunión (167 km) eta Hardrock 100 Endurance (161 km) maila handikoetan. Negutrailean berarekin solasaldia izateko geldialdiak Santa Kurutzen (3'5 km), Usartzan (7 km) eta Arrajolan (12 km) egingo dituzte, une horiek galderak egiteko aprobetxatuz. Akondia tontorrean (5,5 km), bestalde, aterako dute talde-argazkia.



Iazko NeguTrailean parte hartu zuten gehienak talde-argazkian.

7 plateraz osatutako dastatzeko menuak **65€**  
www.debarrenaturismo.com

**D** **G**

**Baratze - Belaustegi - Kanala  
Pikua - Txurruka - Urgain**

Martxoaren 28tik apirilaren 13ra

**GOURMET**



# "Emakumea mendiko kirolean" gaiari buruzko mahai ingurua

Datorren asteko martitzenean euskarazko mahai-ingurua izango da Portaleako areto nagusian, mendiko kirolean diharduten emakumeak protagonista izango dituen. Ekimena Martxoaren 8ko egitaraua prestatu duen lantaldearena da (Deportiboa ere bertan izan da aurten), aldi berean Mendi Jardunaldietako egitarauan sartu bada ere. Mahai-ingurua arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta, Ainhoa Lendinez ETBko kazetaria eta mendi-kirol mundu horretan diharduen elgoibartarra moderatzaile dela, beste lau kirolari izango ditu protagonista: Irati Anda eskalatzailea, Lur Basterretxea eskiatzailea eta Oihana Azkorbebeitia eta Mayi Mujika korrikalariak. Laukotearen disziplina aniztasuna alde batetik, hamarkada desberdinetako emakumeak izatea bestetik

baina badute guztiak lotzen dituen haria, mendia eta mendiko kirolak maite dituztela. Bakoitza erreferentea izan da bere disziplinan, eta jarraitzen dute izaten. Baina horra iristeko bidea ez da laua izan, eta horren inguruan jardungo dute, bidean aurkitu dituzten aldapa eta hertz horietaz batez ere: emakumezko izateak kirol ibilbidean zer ekarri dien, euren ibilbideak duintasunik izan duenaz (edo ez), bizi izan duten ahalduntze prozesuaz...



Ainhoa Lendinez moderatzailea.



Goian, Mayi Mujika. Behean, Oihana Azkorbebeitia, biak ere korrikalariak.



Goian, Lur Basterretxea eskiatzailea. Behean, Irati Anda eskalatzailea.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

Betis - SD EIBAR (bihar, 12:00)

#### Gizonezkoen 2. Maila

SD EIBAR - Huesca (etzi, 16:15)

#### Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Ejea - SD EIBAR B (etzi, 12:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Aviles (bihar, 16:00)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

SD EIBAR C - Durango (etzi, 12:45)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Elorrio - SD EIBAR C (gaur, 20:30)

#### Erregionaleko Gorengo Maila

Lazkao - URKI (bihar, 17:30)

EIBARTARRAK - Zestoa (bihar, 18:30)

#### Erregionaleko 1. Maila (Kopa)

URKI B - Bergara B (etzi, 18:00)

#### Ohorezko Jubenil Maila

SD EIBAR - Athletic (bihar, 12:30)

#### Jubenilen Nazional Liga

SD EIBAR B - Alaves B (etzi, 15:30)

#### Jubenilen Euskal Liga

Anaitasuna - URKI (bihar, 17:30)

#### Kadeteen Euskal Liga

Kostkas - SD EIBAR (etzi, 17:00)

### FUTBOL-ZALETUA

- Xania Taberna - Malape (bihar, 09:00)
- L. Rueda - Kalaka B. Aires (bihar, 10:30)
- Adahi Etxegi - BOJ (etzi, 09:00)
- Garajes Garcia - Baserri (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Kursaal Basauri (bihar, 16:45)

#### Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Anaitasuna (bihar, 18:45)

#### Emakumezkoen Euskadiko Liga

Leizaran - MEK EIBAR B (bihar, 16:30)

#### Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Soraluze - MEK EIBAR B (bihar, 18:00)

#### Gizonezkoen Jubenilen Euskadiko Liga

Tolosa - MEK EIBAR (bihar, 11:15)

### SASKIBALOIA

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Ostadar (bihar, 14:30)

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBAR B - Errotaundi (bihar, 16:15)

### WATERPOLOA

#### Gizonezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Getxo - URBAT B (bihar, 20:00)

### XAKEA

#### Gipuzkoako 1. Maila

Astigarraga A - EIBAR A (bihar, 16:00)

#### Gipuzkoako 3. Maila

EIBAR B - Beraun Bera D (bihar, 16:00)



## Xakeko herriko lehen taldea igoera postuetan dago bi jardunaldiren faltan

Azken jardunaldian lortutako garaipenari esker, Klub Deportiboko 1. Mailako taldea maila Gorenerako igoera postuetan dago eta 2,5 puntuko abantaila ateratzen dio hirugarren sailkatuari. Azken bi norgehiagokak erabakiorrak izango dira, beraz, Eibar A taldearentzat.

3. Mailako B taldeak hirugarren amaitu du eta, horrela, lehenengo sei postuetan sailkatzeko norgehiagoka jokatuko du. 3. Maila horretan jokatzen duen C taldeak garaipenarekin amaitu zuen denboraldia, esperientzia ederra izan dena xake eskolako ikasle berrientzat.



## SD Eibar-ek Huesca hartuko du domekan

Beñat San Josek prestatzen duen Hypermotion Ligako taldeak partidu zaila izango du etzi Ipuruan (16:15ean), igotzeko borrokan sartuta dagoen Huesca izango baitu bisitari. Helduen mailako beste bi taldek jokatuko dute etxean, Unben: 2. RFEF mailako emakumezkoenak Aviles hartuko du eta 3. RFEF mailako gizonezkoenak Durango. Beste hiruri kanpoan jokatzea egokituko zaie: F Ligako SD Eibar-ek Betisi egingo dio bisita, 2. RFEF mailako gizonezkoena Ejeara joango da eta Euskal Ligako emakumezkoenak Elorrion izango du partidua. Erregionaleko futbol taldeei dagokienez, Gorengo mailako Eibartarrak eta 1. Mailako Urki taldeek Unben jokatuko dute, Urkiko lehen taldeak Lazkaon.

## Asola Berriko Anartz Estebanek gorenean hasi du Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketa

Aurreko zapatuan Soralezuko San Andres bolatokian hasi zuten Gipuzkoako 54. hiru txirlo bola joko txapelketan, Asola Berriko ordezkariak bikain moldatu ziren, euretako hiru lehen seiren artean sailkatuz. Javier Osorok irabazi zuen 69 bola-

riren parte-hartzea izan zuen tiraldia, Anartz Esteban eibartarrarekin berdinduta, sei txirlorakin. Ondoren sailkatu ziren, lau txirlorakin, Asola Berriko Garikoitz Rodriguez eta Bittor Ugarteburu, Jon Aransolo eta Erik Muñozekin batera.



San Andres bolatokian saritutako seikotea, tartean Asola Berriko hiru ordezkariak.

## Bihar pala eguna izango da Astelenan

Euskal Jaiaren egitarauaren barruan Eibarko Pala Txapelketiak betetzen duen bosgarren edizio honetan, laugarren jardunaldiko partiduak hartuko ditu bihar Asteleak, goiz eta arratsalde. 09:00etan hasita, lau neurketa izango dira goizekoan: Gaztelu-Lahidalga vs

Gisasola-Sologaistua, Txirloi-Barru vs Egiburu-Irizar, Iosu-Guinea vs Azeri-Gereñu II eta Urkia-Bartolo vs Txiplo-Unda. Arratsalderako geratuko da bosgarren norgehiagoka bat, Diez-Diez II eta Txaparro-Mendibe bikoteen artekoa, 16:30ean hasita.





## Ramon Argiñao Urionabarrenetxea

**1. URTEURRENA**  
2024/03/24

“Urtebete pasa da  
utzi zenigula, baina  
egunero zaitugu  
eta izango zaitugu  
gure artean”



- ETXEKOAK -



## Beatriz Irureta Manzidor

**1. URTEURRENA**  
2024/03/23

“Maite ditugunen  
argia ez da sekula  
emetatuko”



**ASKO MAITE ZAITUGU**  
- ETXEKOAK -



## Igor Gavilán Rodríguez

2025/03/18 

Ezinezkoa da gurekin ez zaudela sinistea,  
zure barreak berriz entzungo ez ditugula  
pentsatzea, zure laguntasunik gabe bizitzen  
jarraitu behar dugula ulertzea.  
Gure bihotzak ukitzen ematen zenuen denbora.  
Ez zaitugu inoiz ahaztuko, Igor!

**La★Salle**  
Eibar

*Ikasle eta lankideengan utzi duzun  
aztarnak bizirik iraungo du betiko.*

- EIBARKO LA SALLE HEZKUNTZA ELKARTEA -

 <b>FUNEUSKADI</b> Grupo Asistia	 <b>FUNERARIA MUGICA</b> Funeruskadi
 <b>TANATORIO EIBAR</b>	 <b>TANATORIO CREAMATORIO ELGOIBAR</b>
<b>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951</b> <a href="http://www.funuskadi.com">www.funuskadi.com</a>	
Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	



## Coro Azcarraga Alonso

**5. URTEURRENA**  
2020/03/25

Betirako gure  
bihotzetan.

**MAITE ZAITUGU**



- ZURE FAMILIA -

MAIALEN BILBAO • Idazlea

# “Gauza berdinak idaztea norberari mugak jartzea da”

Suspensearen eta intrigaren bidetik eramango gaitu berriz ere Maialen Bilbao idazleak. ‘Martina’, ‘Escala de grises’ eta ‘Nieve roja en Helen’s Bay’ liburuen ostean, lan berria kaleratu du: ‘El Juego del Arlequín y otros cuentos’. Gainera, bere eskutik sortu ditu ipuin-sorta honi beste dimensio bat ematen dioten ilustrazioak. Liburua Topalekun aurkeztuko du apirilaren 5ean.

**M**isterioa sortzen abila da Maialen Bilbao eta bere lanetan intrigazko munduak sortzen ditu. Aurrez aurreko tratuan, ostera, oso gozo eta irribarratsua da. Txikitatik izan du idazteko eta marrazteko zaletasuna, bere terapia dela diosku.

## Zein da izenburuan aipatzen duzun Arlekinaren Joko hori?

Liburua antologia bat da, 30 ipuin batzen ditu. Izenburua ipuin horietako batetik hartu dut. Dena dela, beste alde batetik begiraturaz, dirudienaren eta benetan denaren arteko dualtasun edo joko horretan ere kokatu daiteke. Irakurlearekin jolasteko modu bat da. Gauza bat pentsatu dezakezu eta azkenean ez da hori gertatzen. Horretan oinarritu naiz ipuinak kontatzeko orduan. Bestalde, estetikari begira, irudia polita da eta izenaren sonoritatea polita iruditzen zaitzaidan.

## Irudi polita... eta beldurgarria!

Bai, izan daiteke! Azkenean, hori da asmoa. Ez beldurtzea, baina bai iluntasun eta suspense kutsu hori ematea.

## Ipuin solteak dira ala elkarren arteko lotura dute?

Ipuin solteak dira. Ez dute elkarren arteko lotura zuzenik, baina denak daude testuinguru ilun edo makabro batean kokatuta. Ipuin bakoitzak bere istorioa eta unibertsoa ditu, baina denak dira

ilunak, beldurrezkoak eta batzuk baita gogorrrak ere.

## Nola saiatzen zara irakurlea beldurtzen edo intriga sortzen?

Inspirazioa iturri askotatik lortzen dut. Eguneroko xehetasunetan sortu daitezke ideiak. Bestalde, genero horretako klasikoak irakurtzen ditut, pelikulak ikusi, kondairen inguruan ikertzen dut... Gainera, asko gustatzen zait autobusean edo metroan doan jendearen atzean egon daitekeen istoria asmatzea.

## 30 ipuin sortzeko irudimen asko behar ko da ba!

Tira, hamar urteko tartean idatzi ditut liburuko ipuinak. Beraz, ipuin batzuek bost urte dituzte eta beste batzuek sei hilabete. Hautaketa-lana egitea eta ipuinen istorioak leuntzea eta dotoretzea izan da lanik mardulena.

## Idazterako orduan nolako prozesua jarraitzen duzu?

Aurretik bi eleberri idatzi ditut eta lan honi aurre egiteko modua ezberdina izan da. Eleberri bat idatzi izan dudanean, hasi eta amaitu arteko prozesua izan da. Hau ezberdina izan da. Ipuinak hautatu behar izan ditut, baita idatzi edo zuzendu ere, baina gehiago izan da bateratze-lana egitea, zentzua ematea eta polita jartzea. **Asko kostatu zaizu hautaketa-lana egitea eta testuak egokitzea? Noiz ematen duzu amaitutzat prozesu hori?**

Ezin daiteke esan (barreak). Liburua





'El Juego del Arlequín y otros cuentos' lana kaleratu du Maialen Bilbaok. EKHI BELAR

**“Autobusean edo metroan doan jendearen atzean egon daitekeen historia asmatzea asko gustatzen zait”**

argitaratuta ere, idatzi dudan ipuin bat irakurriz gero, beti pentsatzen dut gauzak beste modu batean jarri nitzakeela. Bestela, oso prozesu polita izan da. Lehen aldia izan da horrelako proiektu bat egiten dudana, sekula ez dut antologiarik egin, baina ordua zela pentsatzen dut, asko nuelako idatzita. Kontakizun asko nituen. Beti gustatu izan zait idaztea eta marraztea, artea oro har, eta nituen gauzak ikusita liburu bat idazteko materiala nuela pentsatu nuen.

**2016an argitaratu zenuen lehen liburua. Idazle moduan nolako eboluzioa izan duzula pentsatzen duzu?**

Hamar urte dira lehen liburua idatzi nuenetik eta idazketan hobekuntza nabaritzen dela uste dut. Praktikak eta esperientziak asko laguntzen dute. Idazle moduan hazi egiten zara, bidean ikasi egiten duzu. Horrela ez balitz, kezkatu egingo nintzateke (barreak). Hobekuntzaz gain, ezberdintasun bat nabari dut. Ni neu ere ez naiz pertsona berdina, orain dela hamar urte beste pertsona bat nin-

tzen, beste gauza batzuk idazten nituen. Beti gauza berdinak idaztea norberari mugak jartzea da.

**Dena dela, zure estiloari jarraitzen diotzu kontakizun ilun eta misterioitsuak eginez, ezta?**

Bai bai, hori nirea da eta horrekin hilko naiz. Esan bezala, nik ere horrelako gauzak kontsumitzen ditut, baita fantasiazko gauzak ere. Horrelakoa naiz. Bakoitzak bere zaletasunak eta gustuak ditu.

**Liburu honetan zure ilustrazioak jarri dituzu. Nolakoak dira?**

Azala kenduta, barruko irudi guztiak egin ditut. Kontakizun bakoitzaren aurkezpena egiteko marrazki txiki bat jarri dut. Ipuina irakurri ondoren marrazkiak berriz ikusiz gero, beste zentzu bat harapatzen zaio. Ez da ezer aurreraten, baina pistaren bat bai.

**Liburua non erosi daiteke?**

Nik nituenak agortu egin zaizkit, baina 'Amazon' eta 'Elkar'-en webguneetan eskuratu daitezke, eta laster 'La Casa del Libro'-n.



# XLVIII. ANTZERKI JARDUNALDIAK



**martxoak 21 (barixakua)**



**“Las que gritan”**

Pentación y Coribante (Madril)

**KOMEDIA / 95'**

**Antzeleak:** SOLEDAD MALLOL, EVA ISANTA,  
ROCIO MARIN, MARIONA TERÉS

**Zuzendaria:** JOSE M<sup>a</sup> DEL CASTILLO

Komedia-tonu barregarriarekin, bizitzan bezala, errealitate bat islatuko dute, batzuetan kontrolik gabea izan daitekeena, dibertigarria beste batzuetan, gupidagabea aldizka, mistikoa tarteka, aurreikusi ezin dena zalantzarik gabe, eta surrealista sarritan. Hiru ahizpa eta desagertutako ama bat.

**Coliseo (19:00)**

**martxoak 22 (zapatua)**



**“Lutinier”**

Altraste Danza (Araba)

**DANTZA / 80'**

**Antzeleak:** ZURIÑE BENAVENTE, NELSON  
MARTINEZ, MAGDALENA OTTL, NICOLAS SANCHEZ

**Zuzendaria:** ZURIÑE BENAVENTE

Antzezanaren haria bizitzan ditugun bigarren aukerak dira, eta memoriaren eta ahazturaren bidez egiten dugun berrinterpretazioa, eszenaren gainean konposizio- eta birkonposizio-lana eginez. Antzeleek berek lantzen eta aldatzen dituzte argiak, musika, eszenografia, hitzak eta mugimendua.

**Uni-Eibar (19:00)**

**martxoak 23 (domeka)**



**“Futbolistoc”**

Zuhaitz Gurrutxaga (Gipuzkoa)

**MONOLOGOA / 80'**

**Zuzendaria:** ZUHAITZ GURRUTXAGA

Bere bakarkako bigarren lana da aurkeztera datorkiguna. Futbolisto baten konfidentziak berreskuratzeaz gain, denbora hartako beste hainbat bizipen izango ditu hizpide. Horrez gain, lehen mailako futbolari zenetik lehen pertsona pairatzea tokatu zaion Asaldura Obsesibo-Konpultsiboaz (gaztelaraz TOC) ere hitz egingo digu. Guztia, dena dela, umorea bidelagun duela jorratuko du.

**Uni-Eibar (19:00)**

**martxoak 25 (martitzena)**



**“14.4”**

Barco Pirata - Teatro Español (Madril)

**DRAMA / 105'**

**Egilea:** JUAN DIEGO BOTTO

**Antzeleak:** AHMED YOUNOUSSI

**Zuzendaria:** SERGIO PERIS-MENCHETA

Lan honek distantzia labur batek (14,4 kilometro) bereizten dituen bi munduren arteko bidaia jorratu nahi du, hizkera errealista eta, aldi berean, erabat liriko eta poetiko baten bidez. Ahmeden istorioan, haren begietan Espainia paradisua da lurrean, bidearen amaiera, bidaiari orok amesten duen Itaka.

**Coliseo (19:00)**



## Urteko Batzar Nagusia egin du ...eta kitto! Euskara Elkarteak

Eguaztenean elkartearen egoitzan egindako Urteko Batzarrean aurkeztu zituen ...eta kitto!-kiazko balorazioa eta balantzea eta 2025erako proposamena eta aurrekontua. Elkarte ahalduzko urtea izan zen aurrekoa eta horretarako ezinbestekoak izan dira elkartearen jar-

duna gizarteratzea eta herritarren babes lortzea; digitalizazioan elkarteak emandako aurrepausoak ere nabarmendu ziren eta proiektu profesional erakargarria, modernoa eta berritzailea izateko emandako urratsak ere bai. Elkarlanak elkartearen duen pisua azpimarratu zen

batzarrean, eta “horretan jarraitu nahi dugu, aliantza berriak lotzen eta elkarlaneko sarea ehuntzen”. 2025ean ere lantaldearen egonkortasuna lantzen eta marka-ikuspegiaren eta babes sozialaren ildotik jarraituko du elkarteak, berrikuntzaren ikuspegia lantzearekin batera. Bazkide-kuotan, bestalde, ez da aldaketarik: 5 euro 16 urtetik beherakoek; 20 euro langabetu, ikasle eta jubilatuek; eta 50 euro lanean ari direnek. Kuota urtean behin ordaintzen da. Zuzendaritzarako proposamena, horrela osatuta geratu da onartuta: Ekaitz Juaristi presidentea; Gorka Guenaga presidenteordea; Maider Aranberri idazkaria; Marisol Uriarte diruzaina; eta bokalak Ana Aizpurua, Julian Fernandez, Ainara Lavado, Ane Lizarralde, Jon Mardaras, Anartz Mitxelena, Jon Mikel Mugika eta Iraia Muñoa. Horrez gain, batzarra hasi aurretik ez-ohikoa egin zuen elkarteak bazkideei Estatutuaren hainbat aldaketa proposatzeko.

## Aitziber Badiola adituak itxura pertsonala hobetzen ikasteko saioa eskainiko du apirilean

Aitziber Badiola irudi-aholkularia itxura pertsonalaren inguruko aholkuak eta tresnak eskaintzera etorriko da Eibarrera, Illunabarri programaren barruan ...eta kitto!-k antolatutako duen ikastaroan. “Tailer honen helburua da hausnarketa pertsonala egitea, nork bere itxura nola hobetu dezakeen aldaketa txikien bitartez eta mozorrotuta sentitu gabe”, dio Aitziberrek. Besteak beste, honako gai hauek landuko ditu ondarrutarrak ikastaroan: koloreak itxura per-

sonalean duen garrantzia, gure gorputza nola onartu eta potentziatu eta estilo edo esentzia propioa nola landu. Apirilaren 3an, eguena, egingo da tailerra ...eta kitto!-n, 18:30ean hasita, eta pare bat orduko iraupena aurreikusten zaio. Izen-ematea gaur bertan zabaldu da eta horretarako hainbat aukera eskaintzen ditu ...eta kitto!-k: telefonoz (943200918) edo emailez (elkatea@etakitto.eus). 7 euro balio du, 5 euro elkarteko bazkideentzat.





## Gaur erosi ahalko dira 'Ostirala iritsi da' ikusteko sarrerak Untzagan

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore etorriko dira Eibarrera apirilaren 12an (zapatua), *Ostirala iritsi da* ikuskizuna aurkeztera Jaixak Herrixak Herrixandako-ren eskutik. Emanaldi bi eskainiko dituzte, Coliseo antzokian, lehena 16:00etan eta 18:00etan bigarrena. Sarrerak gaur eta datorren barixakuan (hilak 28) salduko dituzte, 16:30etik 19:00etara Untzagan (10 euro, eskudirutan ordaindu beharko da).



## M8 sormen-tailerrean egindako lanen erakusketa

Maite Arriagaren eskutik aurreko astean egindako sormen tailerrean parte hartu duten emakumeen lanekin erakusketa zabaldu dute Topalekuan. Tailerra eta erakusketa Martxoaren 8ko lantaldeak antolatutako *Bizitza duinak, guztiontzat eta edonon* programazioaren baitan burutu dira, eta martxoaren 30era arte egongo da erakusketa ikustera joateko aukera.



## 'Y el pirata creó el mar' liburuaren argitalpen berezia

Eguaztenean aurkeztuko dute *Y el pirata creó el mar* liburuaren argitalpen berezia, 19:00etan Portaleko ikastaro gelan. Francisco Romeroren liburuaren edizio berezi honek Imanol Urreisti Ulazia Armeria Eskolako Zuzendariaren, Leire Illaramendi Proiektu Koordinatzailearen, eta Carlos Abad Armeria Eskola Elkarteko Presidentearen hitzaurreak ditu. Literatura independentean aitzindaria da Romero, hogeita hamar liburu baino gehiago argitaratu ditu, eta sari ugari eman dizkiote.



## Gazte Safak tailer gastronomikoak emango ditu

Marokoko janaria prestatzen ikasi nahi dutenentzat tailerrak antolatu ditu Gazte Safak: "Hilero saio bat egitea da asmoa. Banaka zein taldeka eman daiteke izena, eta tokia eta prestatu nahi dutena proposatu dezakete, bestela guk proposatuko genuke eta tailerra Portaleko sukaldean izango litzateke". Informazioa eskatzeko zein izena emateko 631 330 218 telefonora deitu edo gaztesafa@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Horrez gain, *Gazte Safako Urratsak* proiektuaren harira, hamabostean behin, barixakuetan Untzagan egoten dira, elkar ezagutzeko eta aurreiritziekin amaitzeko, besteak beste.





## Euskaraldiaren Gune Ibiltaria Eibarren izango da eguenean

Euskaraldia hasteko bi hilabete falta direla ireki dute norbanakoek izena emateko epea. Euskararen erabilera sustatzeko ariketa soziala maiatzaren 15etik 25era egingo da, eta dagoeneko zabalik dago herriz herri izena emateko epea.

Laugarren edizioa da aurtengoa, eta aurreko aldietan bezala ahobizi eta belarriprest gisara parte hartzeko aukera izango dute norbanakoek euskararen erabilera bultzatzeko egingo den ariketa sozial masiboan. Ahobizi papera hartzen dutenek euskaraz ulertzen duten guztiekin une oro euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute, baita beti lehen hitza euskaraz egitekoa ere. Belarriprest gisa izena ematen dutenek, berriz, euskara dakitenek harekin euskaraz hitz egitera gonbidatuko ditu. Izen-ematea [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunean dagoen formularioa betez egiten da. Hortik kanpora ere, datorren astean zuzenean izena emateko aukera egongo da Eibarren, eguenean (hilak 27) Euskaraldiaren Gune Ibiltaria gurean egongo da eta. Toribio Etxebarria kalean ipiniko dute, 17:30etik 20:30era.

Herritarrek Euskaraldian izena emateko epea zabaldu dela iragartzeko Euskal Herri mailako ekitaldia egin zuten zapatuan Gasteizen, eta bertan eman zituzten ezagutzera edizio honetako nondik norakoak. Esandakoari jarraituz, behin izena emanda, aukeratutako rola araberako txapa eskuratu beharko dute parte-hartzaileek. Horretarako, batzordeak ibiliko dira buru-belarri txapak banatzen Euskal Herriko herri eta txoko guztietan. Euskaraldiko lantaldearen ustetan ezinbestekoa da ariketak irauten duen 11 egunetan txapa soinean erabiltzea, aurrean den ezezagunak euskaraz badakien erakutsiko baitu txapak. Norberarentzat baino besteentzat keinu bat da txapa, beraz.



## Eibarko bizikleten arkitekturari buruz egingo du berba Joseba Aranzabalek

Joseba Aranzabal arkitekto eibartarrak *Eibar: la arquitectura de la bicicleta* izenburuko hitzaldia emango du martitzenean, 19:00etan, Untzaga gizarte zentroan. Antolatzaileek azaldu digutenez, “gai horri buruz aritu zen doktore tesian, eta Eibarko bizikleta markak, fabrikak, jatorria, eta bizikletak egiten hasteko arrazoiak azalduko dizkigu. Eibarko herritarrak gonbidatzen ditugu Joseba Aranzabalekin Eibarko bizikletaren industriari buruzko aurkezpen honetaz goatzera”. Untzaga gizarte etxeko arduradunen berbetan, “Eibarko ondarea eta historia zabaltzen eta berreskuratzen lagundu nahi dugu, gure hiriko balio horien alde lan egin duten eibartarrei protagonismoa emanez”. Ildo horretan, urtarrilean Javier Martin Lapeyrak zabaldu zuen ondarearen inguruko hitzaldi-zikloa, lur-azpiko Eibarri buruzko aurkezpenarekin.

## Mercedes Kareaga Bekaren bigarren deialdia egingo dute

Mercedes Kareaga Bekaren deialdia hutsik geratu denez, bigarren deialdia kaleratuko dute. Instrukzio Publikoa Eibarren (1880-1936). Eibarko maistrak' izango da ikerketa-gaia. Deialdiak 2025-2027



urteak hartuko ditu eta bekadunak 15.000 euro jasoko ditu. Ikerlariak 20 hilabeteko epea izango dute lana amaitzeko, eta denbora tarte horretan lau txosten aurkeztuko dituzte, UPV/EHUK eta Eibarko Udalak osatutako batzorde mistoak lanaren jarraipena egin dezan.



**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

4	9		5	3			
1				6	7		
7			1				
		8	7			2	9
5	7						4
6	2			8	5		
			7				2
		4	3				7
			2	1		5	4

P	9	6	1	2	9	4	0
L	1	0	6	0	0	0	0
C	0	0	0	0	0	0	0
C	4	0	0	1	2	7	0
0	7	1	0	0	0	0	0
6	0	0	0	0	0	0	0
0	0	0	0	0	0	0	0
0	6	4	0	0	0	0	0
1	2	0	0	0	0	0	0

soluzioa

**S U D O K U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	7		5	4		2	
				9			3
4	9			2	6		
5							6
		3			4		
7	1						5
		7		3			4
	3			1			
		4		5	2		1

soluzioa

9	1	0	2	9	2	7	0
2	0	6	1	7	5	0	0
6	7	0	0	0	2	2	1
0	0	0	7	9	0	2	1
1	2	7	5	2	6	0	0
0	9	2	1	0	2	6	7
2	5	0	0	2	1	0	0
7	0	1	2	0	0	5	0
0	6	2	0	7	5	1	0

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zebakidunak beheko taulara, eta Inazio Goikoetxea "Gaztelu" olerkariaren lerroak aurkituko dituzu.

Erretzeko zura	1	2	3	R	R	A
Ehun urtekoa	M	E	4	D	5	A
Mexikoko zibilizazioa	A	6	T	7	K	A
Ondoko	H	U	8	R	9	N
Gozotasunez	E	10	T	I	K	I
Jainkoei opariak eskaintzeko	A	L	11	12	R	13
Kidea	L	A	14	15	16	17
Magala	A	L	18	19	20	A
Arreta	A	R	21	22	R	A
Adineko gizona	A	23	24	R	E	A

Ilargi bete	I	L	25	B	E	26	T	E
Hegazti moko zapala	A	27	A	T	28	A		
Ondasun multzo	O	29	D	30	31	E		
Esanahi	Z	32	33	T	34	U		
Haurren negar-zotinak	M	35	36	37	38	K		
Ruandako hiriburua	39	I	40	A	L	I		
Zerriak	41	42	D	43	A	K		
Jaiegun	I	44	45	46	47	E		
Lehortu	48	D	O	R	49	U		
Mugak finkatu	M	50	51	A	T	52		

1	2	3	4		5	6	7	8		9	10		11	12			
13	14	15	16		17	18	19	20		21	22	23	24				
L	E	25	26	27	28	29	30	31	32	33		34	35	36	37	38	39
40	41	42	43	44	45	46		47	48	49	50	51	52				

# Martxoak 21 - 27

## BARIXAKUA 21

### PAILAZOENDAKO SARRERAK

**16:30/19:00** Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta apirilaren 12an Porrotx eta Marimototsek aurkeztuko duten "Ostirala iritsi da" ikuskizunerako sarreren salmenta (10 euro, esku-dirutan ordaindu beharko da). Untzaga plaza.

### BARIXAKUAK JOLASIAN

**17:00/18:00** 2 eta 8 urte bitartekoentzat jolasak, euskaraz, begiraleekin. Antolatzailea: ...eta kitto! Doan. Urkizu.

### HITZALDIA

**18:00/20:00** "Mitologia klasikoa", Miguel Arroitauregi. Doan. Ipuruako Merkatu Plaza.

### ZINE-FORUMA

**18:30** "Ellas hablan" (Zuz: Sarah Polley). Dinamizatzailea: Yanire Sagredo Hernaez. Pagatxak antolatuta. Sarrera librea. Portalea.

### ANTZERKI

#### JARDUNALDIAK

**19:00** "Las que gritan" (Pentacion Espectaculos eta Coribante, Madril). 15 euro. Coliseo.

## ZAPATUA 22

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, HH-koentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

### ROLLER-DISKO

**19:00** Roller Disko Librea. Ipuruako Merkatu Plaza.

### ANTZERKI

#### JARDUNALDIAK

**19:00** "Lutinier" (Altraste Danza, Araba). 12 euro. Uni Eibar (Hezkuntza Esparrua).

### MUSIKA

**21:00** Judash taldearen kontzertua. Guridi taberna (terrazan).

## DOMEKA 23

### MENDI JARDUNALDIAK

**08:30** Negutrail topaketa, Javier Dominguezekin. Kalamua Korrikalari Taldearekin elkarlanean. Eibarko Klub Deportiboa.

### MANIFESTAZIOA

**12:00** "Elkartasuna Palestinarekin". Untzaga.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, HH-koentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45** Ipurua kiroldegia.

### ANTZERKI

#### JARDUNALDIAK

**19:00** "Futbolistoc" (Zuhaitz Gurrutxaga, Gipuzkoa). 12 euro. Uni Eibar (Hezkuntza Esparrua).

## ASTELEHENA 24

### ONGIZATE EMOZIONALAREN ASTEA

**11:30** Irekiera ekitaldia.  
**12:00** "Buru osasuna zaintzen", Zuhaitz Gurrutxagaren eskutik.  
**13:00** Dinamika parte-hartzailea. Armeria Eskola.

## MARTITZENA 25

### MINTEGIA

**08:45/14:00** "Euskararen sozializazioa eta transmisioa", ...eta kitto!-k antolatuta. SD Eibar-ko prentsa-aretoa (Ipurua).

### ONGIZATE EMOZIONALAREN ASTEA

**11:30** "Mugikorraren eragina osasun emozional eta mentalean". Maitane Ormazabal psikologoa.  
**12:30** Mahai-ingurua: "Adikzioek buru osasunean duten eragina eta hezkuntzan prebentzioa sustatzearen garrantzia".  
**13:30** Buru osasunean adikzioek duten eragina aztertzen. Armeria Eskola.

### MENDI JARDUNALDIAK

**19:00** "Emakumeak Mendiko Kirolean" mahai-ingurua. Irati Anda, Lur Basterretxea, Oihana Azkorbebeitia eta Mayi Mujika. Moderatzailea: Ainhoa Lendinez. Portalea.

### HITZALDIA

**19:00** "Eibar: la arquitectura de la bicicleta", Joseba Aranzabal arkitektoa. Untzaga gizarte zentroa.

### ANTZERKI

#### JARDUNALDIAK

**19:00** "14.4" (Barco Pirata eta Teatro Español, Madril). 12 euro. Coliseo.

## EGUAZTENA 26

### ONGIZATE EMOZIONALAREN ASTEA

**08:00** Suizidioa: testigantza, Agifes elkartearen eskutik.  
**09:00** Dokumentalak: "Beste Pandemia" eta "La Muerte Silenciada".

**10:00** Suizidioaren ondoan: hausnarketa. Armeria Eskola.

## EGUENA 27

### ONGIZATE EMOZIONALAREN ASTEA

**08:00** Erronka: Osasuna eta ongizate emozionala. Armeria Eskola.

### HITZALDIA

**10:00** "Ritos funerarios", Iñaki Olaizolarekin. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Armeria Eskola.

### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

### EUSKARALDIA

**17:30/20:30** Euskaraldiko Gune Ibiltaria. T. Etxebarria.

### TAILERRA

**18:30/20:00** Clown jarduera helduentzat. Doan. Ipuruako merkatu plaza.

### LIBURU AURKEZPENA

**19:00** "Capitanes del Reino", Jose Antonio Beloqui Colomoren liburua. Eibarko Batzokia.

### ANTZERKI

#### JARDUNALDIAK

**19:00** Antzerkia Zineman: Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdiko laburmetraiak. Doan. Coliseo.

### URTEKO BATZARRA

**19:00** Eibarko Klub Deportiboaren Ohiko Bilkura Nagusia (2. deialdia).  
**20:00** Ez-ohiko Bilkura Nagusia (2. deialdia). Eibarko Klub Deportiboa (T. Etxebarria, 16).

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **22an:** 19:30, 22:30
- **23an:** 20:00
- **24an:** 19:30

**“A complete unknown”**  
DRAMA



2024/AEB/141'  
Zuzendaria: James Mangold  
Aktoreak: Timothée Chalamet, Edward Norton, Elle Fanning  
**Biografikoa/Musika/60. urteak**

## 2 ARETOA

- **22an:** 16:30, 19:30, 22:30
- **23an:** 17:00, 20:00
- **24an:** 19:30

**“Aún estoy aquí”**  
DRAMA



2024/Brasil/137'  
Zuzendaria: Walter Salles  
Aktoreak: Fernanda Torres, Selton Mello, Fernanda Montenegro  
**Politika/Bahiketak/Familia**

## ANTZOKIA

- **22an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **23an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **24an:** 19:30 (1 Aretoa)

**“Los aitas”**  
KOMEDIA



2025/Espainia/88'  
Zuzendaria: Borja Cobeaga  
Aktoreak: Quim Gutiérrez, Juan Diego Botto, Iñaki Ardanaz  
**Road Movie/80. urteak**

## ANTZOKIA

- **22an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **23an:** 17:00

**“Looney Tunes”**  
ANIMAZIOA



2024/AEB/91'  
Zuzendaria: Peter Browngardt  
**Komedia/Extralurtarrak**  
-EUSKARAZ



**DEPOR TABERNA**  
T. Etxebarria, 16 943 94 49 12  
deportaberna@deporibar.com

- **EGUNEKO MENUA** as telehenetik ostiralera 13:00etatik 15:00etara
- **ASTEBURUETAN** razioak, otartekoak, plater konbinatuak...
- **GOSARRIAK** egunero
- **TALDEENTZAKO** menuak egiten dira

**ESKERTZAK ETA URTEURRENAK**  
Urkizu, 11 - solairuartera  
publizitatea@etakitto.eus  
688 62 76 89



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **MANEX!**  
Bixar 9 urte,  
txapeldun! Musu  
asko famelixaren  
eta, batez be,  
Maialen eta  
Koraren partez!



Zorionak, **NORA!!!**  
Urtetxo bat!!! Segi  
beti bezain alai  
eta sorgintxu. Asko  
maite zaittugu.  
Patxo erraldoia  
famelixaren partez!



Zorionak, **UXUE.**  
Martitzenian 2 urte  
bete zenduazten  
eta. Patxo potolua  
etxeke guztion  
partez.



Zorionak, **AROA,**  
bixar 7 urte  
beteko dozuz eta.  
Musu haundi bat  
famelixaren partez.



Zorionak, aitxixa  
**JOSE,** eguaztenian  
urteguna dozulako.  
Mosu haundi bat  
Ander, Jon, Luken  
eta Liberen partez.  
Ospatuko dogu  
bihar dan moduan!



Zorionak, **MARTIN,**  
domekan 8 urte  
beteko dozuz  
eta. Patxo haundi  
bat famelixaren  
partez. Asko maite  
zaittugu.



Zorionak, **JULEN,**  
hillaren 19xan  
3 urte egin  
zenduazten eta.  
Famelixa, Ander  
eta Untzagako  
lagunen partez.



**martxoak**  
**22**  
20:30-21:30

**Egizu bat PLANETAREN**  
**ORDUarekin!**

Eibarko Udalak "Planetaren Ordua" ekimenarekin bat eginez, **ORDUBETE ITZALIKO DITU** Untzaga plazako, udaletxeke eriojuko eta arkupeetako argiak, baita Eibarko Bizikleta plazako argi batzuk ere.

**EIBAR**

#MiRincónDelPlaneta  
#HoraDelPlaneta




**ITZALI ARGIA.**  
**BABESTU PLANETA.**

# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Logela bat hartuko nuke Eibarren edo inguruan. Gehienez 320 euro ordaintzeko. 627122105.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Abontzan. 625071888 eta 626528738.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsalde zaindari gisa edo umeak zaintzeko. 665733162.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak zaintzeko. 613073936.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako: zainketa, garbiketarako... 613215006.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde zaindari (13:00etatik aurrera) pegoarak garbitzeko eta umeak zaintzeko. 620757528. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 688691739.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak zaintzeko. 686520473.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. 602800266.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta etxea garbitzeko. Espereintzia. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindartzeko eta garbiketarako egiteko. 637990403.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak zaindartzeko. 604249891.
- Neska eskaintzen da garbiketarako edo umeak edo nagusiak zaindartzeko. 633365036.
- Neska eskaintzen da garbiketarako edo umeak edo nagusiak zaindartzeko. 639107272.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak zaindartzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak zaindartzeko. 612284265.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak zaindartzeko. 631354479.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak zaindartzeko. 624978151.

### 4.2. Langile bila

- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batean. Astean bat edo bi egunerako. Bidali CV: niklinika@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Organo elektronikoa salgai. Antonelli markakoa. Doinuen akonpainamenduarekin: vals, tango... Prezioa adosteko. 943752480.



# osasun gida

## Medikuntza Estetikoak



**abontza**  
clínica estética

**Medikuntza**      **Kirurgia**

- Dermatologia estetikoak
- Aurpegia gaztetzea
- Barizeak
- Betazalak, belarriak...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behe      943 206 044

**ANE VESGA**  
CLÍNICA MEDICINA ESTÉTICA

Mediku Estetikoak  
Kirurgia Orokorra  
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta 2bis B, Entreplanta A  
623 003 251 info@draanevesga.com  
WWW.DRAANEVESGA.COM



## Okulistak



**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak




BIDEBARRIETA, 48  
**EIBAR**  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**

**Maider Lopez Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

## Psikologoak

**GONZALEZ DE MENDIBIL**

**PSIKOLOGIA PSIKOTERAPIA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO ARRETA PSIKOLOGIKOAK

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com  
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943206823 / 686859023



**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com



**943-206776**



**BATXILERGO ARTISTIKOA:  
ARTE PLASTIKOAK**

**ATE IREKIAK:**

Martxoaren 25ean  
18:00etan



Ikastetxea ezagutu eta informazioa  
jasotzeko EMAN IZENA:  
jardinetazuzendaritza@eibarbhi.eus  
Jardinetza, 3 B / 943 89 92 62

**MGEP**

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRITA, KOOP. I.

**TALENTU  
PROFESIONALA**

eskolatik - industriara

**"Ikasten dudana eta egiten dudana asko  
gustatzen zaizkit eta arrazoi horregatik  
ikasketak erraz gainditu ditut"**



**Aimar Calvo**

Mekatronika Industrialak  
Goi Mailako Heziketa Zikloa  
(GMHZ)

Mekatronika industrialeko goi mailako heziketa zikloa ikasten zabilaz, zergatik aukeratu zenuen MGEP?

Hiru izan ziren arrazoi nagusiak. Alde batetik, ikasketak ni bizirik naizen herrian egin nahi nituen, Arrasaten alegia. MGEP-ek inguruko enpresekin, eta batez ere kooperatibekin, duen harreman estua ere faktore erabakigarria izan zen zentroa hautatzerako garaian, horrek lan munduan atek irekitzen dizkizulako. Azkenik, argi neukan ikasketak eta praktikak uztartu nahi nituela eta MGEP-ek DUAL formatuan ikasketak egiteko aukera eskaintzen zidan.

Beraz, zikloko bigarren urte hau DUAL aurreratua formatuan egiten ari zara...

Bai, hori da. Aurreko urteko uztailetik FAGOR Automation enpresan nago lanean. Goizean klasera etortzen naiz Eskolara, eta arratsaldean enpresan lan egiten dut. Enpresan izan dudana harrera oso ona izan da eta gauzak asko erraztu dizkidate, ikasketetara moldatzeko

ordutegian flexibilitatea eskainiz. Hasieran ikasketak eta praktikak batera egitea kosta egingo zitzaidalda uste izan nuen, baina ez zait batere nekeza iruditu, oso ondo moldatu naiz.

Ikasketak eta landutako gaiak, nolakoak iruditu zaizkizu, zailak edo errazak?

Ikasten dudana eta FAGOR-en egiten dudana asko gustatzen zaizkit eta arrazoi horregatik ikasketak erraz gainditu ditut, inongo arazo gabe. Duela urte batzuk, batxilergoa edo zikloak aukeratu behar izan nituenean, nik oso argi izan nuen zikloetarako egingo nuela, hori bait nuen gustuko: elektrizitatea eta mekanika. Oso garrantzitsua da benetan gustuko duzun hori ikastea. Hala denenean, motibazioa eta ilusioak ikasketen prozesua asko errazten dute.

Zer goralpatuko zenuke MGEP-en izandako esperientziaren inguruan?

Batez ere erronkak eta talde lana. Bi elementu hauen konbinazioa etengabean jorratu dugu bi urte hauetan. Taldean lan egitea ez da beti erraza, jendeak interes eta izakera desberdinak dituelako. Helburu orokor bat eta erronka bat aurrera ateratzeko taldea kudeatzen ere ikasi behar da, hau da talde lana ondo egiten jakitea, eta gero, horrek asko laguntzen dizu enpresan zaudenean.

**ATE IREKIAK: Apirilak 5 11:00**

**Eman izena!**

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704

